

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

450/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Sabino Sarrionaindia Azaola jauna Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertua izan da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2014ko urtarrilaren 31ko 160/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAAn (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Sabino Sarrionaindia Azaola jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Sabino Sarrionaindia Azaola jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Erizain lanpostu funtzionalaren 11669 plazaren jabea dena, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Sabino Sarrionaindia Azaola jauna Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Sabino Sarrionaindia Azaola jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ**

Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
JON ETXEBERRIA CRUZ